

Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran
 = **Identidad y cultura vascas a comienzos del siglo XXI**
 = **Identité et culture basques au début du XXIème siècle** / Erramun Baxok ... [et al.]. – 3 lib. : graf. ; 27 cm.
 + CD-Rom. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2006. – ISBN: 978-84-8419-051-6; ISBN: 978-84-8419-052-3; ISBN: 978-84-8419-053-0.

Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran iaz argitaratutako liburua bada ere, aurten hainbat lekutan aipatua izan da eta izango da oraindik, jorratzen duen gaia benetan interesgarria baita.

Zertan dira euskal nortasuna eta euskal kultura XXI. mendearen hasiera honetan? Zer eta nolakoa da euskal nortasuna herritarren iritziz? Zein eduki eta kontzeptu lotzen ditugu euskal kulturarekin? Euskal Herriko biztanleek zenbateraino identifikatzen dute beren burua nortasun eta kultura horrekin?

Galdera horiekin hasten da liburua eta horiei eta beste galdera gehiagori erantzuna ematen saiatu da ikerlan hau, beti argi izanda lanaren aztergaia Euskal Herriko biztanleek euskal nortasunaren eta euskal kulturari buruz dituzten pertzepzio, iritzi eta jarrerak direla. Gainera egileek argi azaldu dute zein den lanaren helburu zehatza: aipatutakoa aztertzea euskal gizartea hobeto ulertzen eta aurrera begira egin daitezkeen egitasmoei bidea argitzen laguntzeko.

Aztergai zabal horri nola eutsi da planteatzen den lehenengo galdera. Egileek beraiek aitortu dituzte izandako zailtasunak, lantzen diren kontzeptuak labainkorrak baitira eta zalantza eta eztabaidez beteta baitaude.

Beraz, ikerketa bere konplexutasunean burutu ahal izateko lan taldea osatu da, Euskal Herriko zazpi lurraldeetako hainbat ikerlari eta instituziok parte hartuz. Ez dira askotan ikusten Euskal Herriko lurralde ezberdinetako ikerlariak batera lan egiten eta horrek ere, lanak berak duen merituz gain, badu meritua. Horrela, egileak Euskal Herriko lurralde guztietatik datoz eta bultzatzaileak Euskal Kultur Erakundea (Iparraldekoa), Eusko Jauriaritza eta Eusko Ikaskuntza izan dira, Euskadi-Akitania fondoaren diru-laguntzaz.

Egile horiek lanari aurre egiteko erabilitako metodologia anitza izan da:

- Alde batetik, eztabaida taldeak eta banakako elkarrizketak egin dira; guztira 22 eztabaida talde, 7 elkarrizketa eta 3 bitzitza-istorio labur.

Eztabaida taldeak bi motatakoak izan dira, zein bere dinamikarekin: alde batetik, talde orokorrak; hauek gaiari buruzko ezagutza berezirik ez duten pertsonak osatu dituzte eta pertsona horiek aukeratzeko kontuan hartu diren aldagaiak hauexek izan dira: 1) kokapen geografikoa (lurralde bakoitzeko zonalde desberdinetakoak aukera-

tuz); 2) batzuetan euskara jakitea edo ez jakitea hartu da kontuan eta besteetan, aurrekoaren ordean, euskaltzalea izan edo ez izan, hau da, euskararekiko atxikimendua eta euskal kultura edota munduarekiko jarrera positiboa eta hurbiltasuna; 3) adina; 4) bizi ingurunea (landa edo hiria); 5) kostaldea edo barrualdea (bereizkuntza hau bakarrik Iparraldean erabili da); 6) jatorria, bai taldeak osatu dituzten pertsona, baita beren gurasoena ere (aldagai hau, aldiz, bakarrik EAEn hartu da kontuan). Bestalde, egileen hitzetan, "berariazko taldeak" ere sortu dira; horietako bakoitzeko kideak ezaugarri zehatz batzuen arabera aukeratu izan dira edo gizarte esparru jakin batetik datoz: hezkuntza, euskalgintza, kultura, hedabideak, gizarte mugimenduak, eta mugaz gaindiko ekintzak edo jarduerak.

Iparraldean talde gutxiago sortu zirenez, desoreka hori konpentsatzeko zenbait elkarrizketa sakon egin ziren, ikerketako gaietan adierazgarri diren zazpi pertsonari, hain zuzen ere.

Halaber, beren esperientzia pertsonalagatik edota ibilbide profesionalagatik profil berezia duten hiru pertsona zehatzi bizitza-istorio laburrak egin zitzaizkien.

Lan kualitatibo honek balio izan du Euskal Herriko biztanleen iritzi eta jarreretan sakontzeko eta aztergaien inguruan dituzten ideiak eta irudiak eta egiten dituzten loturak aztertzeko.

- Bestalde, 3.822 inkesta egin dira: 1.204 pertsona elkarrizketatu dira EAEn, 1.008 Nafarroan eta 1.610 Iparraldean, denak 16 urtetik gorakoak. Horretarako galdesorta itxia erabili da eta lurralde bakoitzeko lagin adierazgarria osatu duten pertsonak sexua, adina eta lan egoeraren arabera kuoten bidez aukeratu dira. Inkestak inkestatuen etxeetan bertan bete dira.

Inkestaren bidez jasotako informazioa baliagarri izan da jakiteko euskaltasuna eta euskal kulturari buruzko pertzepzio, iritzi eta jarrera horiek zenbateraino dauden zabalduta bai biztanleria orokorrean zein aldagai soziodemografiko eta jarrerazkoren arabera osatutako taldeetan, baita zer-nolako aldaketak dauden talde horien artean ere.

Inkestetako emaitzetatik abiatuz, korrespondentzia bitarren faktore analisiaren bidez, herritarren kategorizazioa ere sortu da. Kategorizazio horren helburua aztertu-taldekotasunari buruzko iritziak dituzten herritar taldeak definitzea da.

- Gainera, eta hau da metodologia aldetik nobedaderik aipagarriena, gai honi buruz interneten agertzen diren iritzien eduki azterketa ere egin da. Iritzien bilaketa egiteko "eusk-" erroa edo hainbat hizkuntzako haren aldaerak ("eusk-", "vasc-", "basqu-", "bask-" eta abar) dituzten testuak bilatu dira, euskaltasuna eta euskal kulturarekin zerikusi zuzena duten iritziak hartu dira aztergai, eta politikari, ekonomiari edota datu historiko edo estatistikoei dagozkienak baztertu dira.

Gainera, azterketa honetan kontuan eduki behar dira lau gauza: 1) herritarren iritziak aukeratu direla eta ez erakundeenak, egunkarietakoak, web ofizialetakoak eta abarrak; 2) gaiari buruzko ezagutza bereziturik ez duen edo eduki beharrik ez duen jendearen iritziak direla; 3) iritzi horiek modu espontaneoan, hau da, inork galdetu gabe, eman direla; eta 4) interneten iritziak ematen dituen jendearen iritziak direla, beraz ez dira gizarte orokorreko lagin adierazgarri batenak baizik eta internetetik mugitzen den jendearenak.

Azterketa honetatik ateratako informazioa aurrekoaren osagarri da gai honi buruz dauden iritziak ezagutzeko, ez bakarrik Euskal Herrian, baizik eta munduan zehar, interneten edozein lekutako jendeak sartu ditzakeelako bere iritziak eta usteak. Eta, gainera, ez duenez inork ezer galdetu, baizik eta hauek iritzi espontaneoak direnez, ondorioztatu ahal da iritzi emaileek neurri handienez presente dituzten edota kezka handiena sortzen dieten kontuak direla.

Gainera, azterketa hau saioa izan daiteke ikusteko neurri batean tradizioan murgiltzen den gai bat tresna berriekin ere azter daitekeela.

Bai landa lan kualitatiboa, zein kuantitatiboa edota interneteko iritzien eduki azterketa ere 2004 eta 2005 bitartean gauzatu dira. Emaizen azterketa, aldiz, 2005 eta 2006 bitartean egin da, eta argitalpena 2006ko bukaeran.

Argitalpena, ikerketak bere baitan hartzen dituen hiru eremu geografikoetako hizkuntza ofizialeetan egiteaz gain (hau da, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez), paperezko eta informatikazko euskarrietan ere atera da, beraz liburu bakoitzarekin batera CD-Roma banatu da.

Liburuan hauxe azaltzen da:

1. Lanaren zergatia.

2. Erabilitako metodologia.

3. Informazioaren azterketa, zenbait azpiataletan antolatua:

1.1. Batetik inkesta, eztabaida taldeak eta banakako elkarrizketatik ateratako informazioaren emaitza orokorrak sei arlo nagusitan:

- *Lurraldea*. Atal honetan honelako gauzak aztertu dira: Euskal Herriaren lurralde irudikapena (hau da, zein lurraldek definitzen duten hobekien Euskal Herria), lurraldeen arteko harremanak, beste lurraldeekiko hurbiltasun sentimendua, Euskal Herriko lurraldeen arteko mugimenduak, lurralde horien arteko harremanei buruzko nahia, norberaren identifikazio eremua eta abar.
- *Nortasuna*: nortasun sentimendua euskal herritar-espainiar/frantziar ardatz ideologikoan, kontuan izanda nafar sentimendua tartean dagoela, nortasun sentimendu edo atxikimendu horien bilakaera, euskal nortasunaren osagaiak eta euskal nortasunaren etorkizuna.
- *Hizkuntza*: euskararen ezagutza edo gaitasuna, gaitasun hori alderatuta, zein den lehen hizkuntza, euskararen ikasketa, horretarako arazoak, euskara ez ikasteko arazoak, euskaldunen eta ez euskaldunen bazterkeria sentimendua, euskararen presentzia eta egoera, erabilera eta abar.
- *Euskal kultura*: euskal kulturaren kontzeptua, ezaugarriak, elementurik garrantzitsuenak euskal kultura eta nafar kulturaren arteko harremana, euskal kultura eta globalizazioa eta abar.
- *Kultur praktikak*. Hemen kultur jardueretan parte hartzea, euskarazko hedabideen kontsumoa, euskal musikaren kontsumoa,... landu dira.

- *Elkarte bizitza*. Azkenik, atal honetan elkarte mota ezberdinetako partehartze maila aztertu da.

1.2. Bestetik, herritarren kategorizazioa egin da nortasuna, lurraldea eta hizkuntzari buruzko ikuspegi eta jarreraren arabera. Kategorizazioa mapa faktorialetan grafikaturatu azaltzen da.

1.3. Hirugarrenez, internetetik ateratako iritzien azterketaren emaitza nagusiak aurkeztu dira.

4. Bukatzeko, ondorio eta gogoetak aurki daitezke, aurretik landutako informazioa eta bestelako erreferentziak kontuan izanik.

CD-Romean, berriz, ikerketa osoa agertzen zaigu, hau da, liburua bera, paperean dagoen moduan, eta liburua egiteko abiapuntu izan diren txosten guztiak: hiru eremu geografikoetako ikerketa kualitatiboak (EAEkoa, Nafarroakoa eta Iparraldekoa), inkestaren emaitzak lurraldeka eta internetetik ateratako iritzi eta pertzepzioen eduki azterketa osoa; halaber, inkestak egiteko erabilitako galdesortak hiru hizkuntzatan, baita eztabaida taldeetan eta elkarrizketetan jarraitutako gidoiak ere.

Beraz, liburuan planteamendua eta emaitza orokorrak agertzen badira ere, gaia sakonago aztertzeko edota gai zehatz bati buruz zer edo nola landu den edota zer ondorio atera daitezkeen hobeto ikusteko, CD-Romera jotzea litzateke zuzenena.

Aipatu bezala, atal bakoitzean ondorio nagusiak aurkezten dira eta, bukatzeko, beste ikerlarien erreferentziak kontuan hartuta gogoeta eta hausnarketa sakonak egin dituzte egileek. Ez dut uste hau denik lekurik onena gogoeta horietaz hitz egiteko, horiek hobeto ulertzeko ikerlana bera irakurtzea delako egokiena eta benetan merezi duelako argitaratutakoa irakurtzeari (ondorioak eta gogoetak, behintzat) denbora emateak.

Baina, bada hemen lekua ikerlanari buruzko ontasun batzuk azpimarratzeko:

- Ikerlanak Euskal Herri osoa, mugak eta bereizketa administratiboak gaindituz, hartu du lan eremutat. Euskal Herri osoko biztanleen iritziak eta jarrerak aztertu dira, nahiz eta gero, azterketan, datuak lurraldeka ere aurkeztu. Euskal nortasuna eta euskal kultura ondo aztertu nahi izanez gero, ezinbestekoa da horrelako planteamendu bat eta kasu honetan bete da.
- Bai ikerlariak, bai bultzatzaileak Euskal Herriko lurralde ezberdinetatik datoz, arazo administratiboak eta batera lan egiteko zailtasunak albo batera utzita, elkarrekin lan egitearen beharra gailenduz.
- Egile hauek ez dira gai honetan sartu berriak; euskal gizartea eta euskal kulturarekin lotutakoa ikertzen urteak daramatzaten ikerlariak baizik. Gainera, leku ezberdinetatik etorrira, seguru nago bakoitzak bere tokiko berezitasunak azaldu dituela, bai planteamendua bai azterketa egiterakoan, lana aberasteko eta emaitzak hobeto ulertzeko.
- Gaia bera interesgarria eta egungoa da, ez bakarrik Euskal Herrian baizik eta beste leku askotan ere. Nortasuna, identitatea, kultura eta bere praktikak,... gero eta gehiago aztertzen ari dira mundu globalizatu honetan.
- Horrexegatik egileak ez dira bakarrik beren esperientzia profesionalean edo usteetan oinarritu, baizik eta kontuan hartu dituzte beste ikerlariak aurretik egindako lanak.

- Lan honekin ez dira euskal kultura eta nortasunari buruzko galdera guztiak erantzun, ezta gutxiago ere. Baina gai honi buruzko hurrengo ikerketetarako abiapuntu edo oinarritzat har daiteke. Oraindik asko dago aztertzeko eta are gehiago aztergaia ez denean iragazgaitza, baizik eta bizia, mugikorra eta alda-korra.
- Erantzun guztiak ez izan arren, emaitzak kontuan har daitezke hemendik aurrera planteatzen litezkeen egitasmo eta politika praktikoei begira.
- Metodologia aldetik ondo konbinatzen ditu teknika kuantitatibo eta kualitati-boak, aztergaiari hobeto heltzeko osagarriak eta lagungarriak direla argi utziz.
- Azpimarratzeko saioa egin du metodologian, interneten dauden iritzien eduki azterketa egiterakoan. Internetek gero eta garrantzi handiagoa du gure bizitzan eta gero eta jende gehiagok parte hartzen du hango foroetan, blogetan eta abarretan, beren iritzia jartzen. Bazen garaia hor dagoen material guztia nola-bait aprobetxatzeko modua topatzeko; argi baitago oraindik hor dagoenaren potentzialtasunez ez garela konturatu. Era berean, teknika berriei esperimintatu da berriak ez diren gaiak aztertzeko eta emaitza ez da batere makala, baizik eta oso interesgarria.
- Hausnarketara gonbidatzen du lanak. Bertan jendearen iritzi eta jarrera ezberdina aurkezten dira, batzuetan muturreko iritzia ere aurki daitezke. Lanak ezberdintasun horiek hobeto ulertzen laguntzeaz gain, gai horretan pentsatzera eta gogoetak egitera bultzatzen du.


Baina kritika batzuk ere egin daitezke:

- Nahiz eta ikerketak Euskal Herri osoa esparrutzat hartu, emaitzen azterketan bereizketa administratiboa errepikatu da, azterketa hori lurraldeka egin baita beti.
- Inkestetatik, eztabaida taldeetatik eta elkarrizketa sakonetatik ateratako informazioaren azterketan bereizketa ere egin da: alde batetik inkestetako emaitzak aztertu dira eta bestetik lan kualitatiboarenak, iturri mota bietako informazioaren sintesia egin barik.
- Inkestan ez da gai horrekiko galdera berrizailerik planteatu, baizik eta ohikoak errepikatu dira. Alde horretatik ikerketaren zati hori apur bat mugatua da.
- Herritarren kategorizazioa ez da beste atalak bezain erraz ulertzen. Horrelako informazioa aztertzen ohituta ez dagoen pertsona batentzat zaila izan daiteke hor dagoen informazioa ulertzea (batez ere nola sortzen diren kategoriak), gainerakoa gaian interesatuta dagoen edonork ulertu ahal badu ere.
- Salto handia dago inkesta eta kualitatiboaren emaitzen analisiaren eta interneteko iritzien eduki azterketaren artean, ezberdintasun nabarmenak baitaude haien artean, hala nola, beren iritzia eman duten pertsonen esparru geografikoa (bata Euskal Herrian mugatua eta bestea mugatugabea), iritzia emateko motibazioa (batzuei galdetu zaizkie galdera zehatzak edota nolabait zuzenduak eta besteek inork galdetu gabe eman dute beren iritzia) eta abar. Beraz, nahiz eta metodologikoki saio interesgarria izan, batzuek modu artifizialean atxikitako azterketa dela pentsa lezakete.

- Bukatzeko, badakit lanaren asmoa ez dela hori baina ondo zegokeen ondorioetatik abiatuta praktikan gauzatzeko proposamenen bat botatzea.

Dena dela, esandako gutzia kontuan hartuz, gure herria hobeto ezagutu nahi duen edonorentzat gutziz gomendagarri deritzot ikerlan honi.

Miren Bilbao Gaztañaga



DE LA GRANJA SAINZ, José Luis

El oasis vasco. El nacimiento de Euskadi en la República y la Guerra Civil

Madrid : Editorial Tecnos, 2007. – 504 p. : il. ; 23 cm.
– ISBN: 978-84-309-4549-8.

El libro *El oasis vasco. El nacimiento de Euskadi en la República y la Guerra Civil*, del catedrático de Historia Contemporánea de la Universidad del País Vasco, José Luis de la Granja, completa la trilogía que emprendió él mismo en 1995 con *El nacionalismo vasco: un siglo de historia*, continuada en 2003 con *El siglo de Euskadi. El nacionalismo vasco en la España del siglo XX*, y culminada ahora en 2007 con este *Oasis vasco*. Los tres libros han sido publicados por la editorial madrileña Tecnos, lo cual es un buen exponente del interés que ha despertado, y sigue despertando, el tema vasco en el mercado editorial y de público español.

Los tres libros contienen muy bien descrita, desde sus mismos títulos, la clave interpretativa de lo que José Luis de la Granja sostiene habitualmente: que el siglo XX ha sido, efectivamente, el siglo de Euskadi, por cuanto el movimiento fundado por Sabino Arana a finales del siglo XIX, sólo desplegó todo su potencial a partir del primer tercio del siglo XX; y porque sólo entonces pudo nacer Euskadi como realidad jurídica y política, por la etapa de excepcionalidad que arranca del acuerdo entre los nacionalistas y las izquierdas españolas (y vascas) de la primavera de 1936, a la que el autor califica precisamente de oasis vasco de paz política y social antes del estallido bélico.

Las aportaciones de José Luis de la Granja al conocimiento histórico del nacionalismo vasco –que no se centran sólo en estos tres libros, sino en una gran cantidad de artículos científicos, y, sobre todo, en su obra central *Nacionalismo vasco y II República en el País Vasco*, publicada por el CIS en 1986, y que va a ser reeditada este mismo año por Siglo XXI– han desarrollado varias tesis hoy ampliamente consolidadas en el seno de la historiografía contemporaneísta vasca: